

Felipe Zubia Olaskoaga

MEDIKUA

A Gripea 2011n. Eta aurten zer?

Iazkoa izan zen A gripearen urtea. Alde guztietatik oso gaizki eraman zen gaitzaren prozesua, hasi prentsak lehen egunetan emandako gehiegizko larritasunetik, pasa ondorengo errudun ehizatik, eta osasun mundutik eman zen erantzunaz bukatuz. Baina zenbait ikasbide ere utzi zizkigun A gripeak.

Oso gaixotasun kutsakorra da, jende gaztearentzat bereziki, eta gehienetan gaixotasun arina den arren, zenbait kasutan oso larria izan liteke. Ez nuke inor alferrik kezkatu nahi, eta portzentaje oso baxua den arren, hor dago arriskua: 5.000 kasutatik bat konplikatzen da, aurrez aurrekaririk ez duen jendea. Guri gertatzea oso arraroa litzateke, baina parean tokatzen zaionak igarriko dio. Hauetaz gain, lehendik gaitz kronikoak dituzten gaixoak ere oker litezke: biriketako arazoak dituztenak, giltzurrunekoak, bihotzekoak...

Eta zer gertatu da aurten? Iaz A gripea urriaren erdian bazen, aurten ohiko gripearen tokia hartu du, eta abendu-urtarrilean gertatu da. Aurten ere, kutsaturiko pertsonen portzentajea oso altua



DANI BLANCO

izan da, eta jende gazteari eragin dio bereziki. Gehienetan gaitz arina izan da, baina berriz ere, oso kasu bakanetan, gaixo larriak izan ditugu, eta Espainiako Estatuan 54 hildako gutxienez eragin ditu. Zainketa intentsiboen beharra izan dutenak berriz, askoz gehiago izan dira, 300dik gora hain xuxen ere. Hauetako asko gazteak, bestelako osasun aurrekaririk gabeak. Orokorrean ez da gaitz larria, baina zenbaitzarentzat izan liteke.

Bestalde, gaixo kronikoak deskonpentsatu ditu, eta ospitale askotan gainzeka egon dira. Eta berritasun moduan, iazko gertaera eta sal-

tsa guztiaren ondoren, gaixo askok txertoa hartzeari utzi dio, beren burua arriskuan jarri. A gripearen txertoa eraginkorra da, ez du ondorio larriak, gaixo kronikoentzat gomendagarria da, eta ez hartzeak euren burua arriskuan jartzea dakar. Zer kaltea eragin dien prentsak!

Aurtengo olatua baretuz doala dirudi. Baina datorren urtean itzuliko da, ezaugarri beretsuekin. Jakin dezagun, beraz, bere berri, ez gaitzean alferrik larritu, baina txerta daitezela gaixo kronikoak faborez. ■

« Aurtengo olatua baretuz doala dirudi.

Baina datorren urtean itzuliko da, ezaugarri beretsuekin. Jakin dezagun, beraz, bere berri, ez gaitzean alferrik larritu,

baina txerta daitezela gaixo kronikoak faborez

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gertatua. Huesca-Girona futbol partidaren ondorengo prentsa aurrekoan, Gironako kazetari batek katalanez galdera bat egin dio entrenatzaileari. Honek, noski, bere hizkuntzan erantzun dio. Kazetari aragoiarrak oldartu zaizkionez, gironarrak prentsaurrekoa bukatutzat eman du. Eskandalua. Euskal Herrian nekez gerta litekeena. Eta honek orain hogeitau urte inguru Gasteizen gertatua ekarri dit akordura. Alaves-Hernani lehen gola Imanol Garmendia *Kartu* lezoarrak buruz egina estrategi jokaldia burutuz. Bigarrena Felix Bakero añorgar-goizuetar-

Huescan

rak, atzealdetik hirurogei bat metroko konduzio-area ertzetik, ezkerrezko jaurtiketaz sartua. Laurogeita hamabigarren minutua zen. Harmailako palkuak hil planta. Ondoren, prentsa aretoan kazetariak nire zain. Begoñak, etxeko entrenatzaileak, zoritxarri egotzi zion porrota. “Arratsalde on”. “Oso garaipen landua...”. Ez didate utzi bukatzen, dozenatik gora kazetari oldartuek. “*Esto es una provocación*” jaurti dit SER katekoak. Bakarrik utzi naute aretoan. Autobusera egin dugu etxerako bidea xede. Irratzen entzun ditugu SEReko kazetariaren eronkak. Txuleta-zen hezuraren zain bizi zen inutila, kabalaren aurrean noraezean. Ongi etorri Mendilibar. ■